

## MANIFESTUA

Miren erabakitzeke eskubideari buruz solastu zaigu eta hori da Aroztegiako kasuan bidegabekeriarik handiena. Edozein modutan, proiektuari buruz ere solastu nahi dugu. Azken finean, Aroztegiako proiektuarekin garapen eredu zehatz bat inposatu nahi digute. Gutxi batzuen interesak defenditzen dituenak, interes orokorraren gainetik. Bistan da, zilegia dela eredu hori defenditzea, ez ordea inposatzea. Planteatzen dena hain ona baldin bada baztanendako eta baztandarrendako, zergatik inposatu galdetu beharrean?

Proiektua aztertzeke hiru galdera planteatzen ditugu: Zergatik? Zertarako? Eta Norendako?

Zergatik planteatzen da Udal Planatik kanpo, lur ez-urbanizagarri diren 46 hektareen birkalifikazioa? Akaso ez da aski 850 etxebizitza hutsik edukitzea Baztanen? Zergatik ematen zaio enpresa honi etekin ekonomiko pribatua lortzeko herri lurak eta lur pribatuak espropiatzeko aukera? Zergatik mantentzen du Geroa Baik pelotazo urbanistikoaren aurkako jarrera Vianan eta aldekoa Baztanen? Zergatik daude Estatu Espainiar osoan pelotazo urbanistikoak egin dituzten eta SICAVen jabe diren enpresariak ekitaldi publikoetako gonbidatuen palkoetan?

Zertarako nahi dira 228 etxebizitza egin 350 biztanleko herri batean? Zertarako eta noiz arte segitu behar dugu sistema ustel eta suntsitzailerik haur elikatzen? Belaunaldi batean gure baliabide guztiak agortu arte? Non dago hainbertze iragarri diguten aldaketa? Norendako da onuragarria proiektu hau? Proiektua nahi ez duten lekaroztarrendako? Erabakitzeke eskubidea ukatu nahi zaien baztandarrendako? Edo herritarren 9000 milloi eurokin erreskatatu duten Caixa Galiciako arduradunendako? Edo arras baztandarrak eta arras nafarrak baina beren zergak ez ordaintzeko SICAVak dituzten Palacio de Arozteguia, S.Lko akziodunendako?

Agortuta, ustelkeriaz kutsatuta eta porrot egin duen ereduaren argazkia da. Gaur egun eta etorkizuneko Baztan desagertzea daraman argazkia. Ez dugu postaletako edo museotako Baztan nahi. Mugimenduan dagoen Baztan nahi dugu, Baztan bizirik nahi dugu, herri txikiak bizirik mantentzen duen Baztan, bertako ekonomia, kultura eta hizkuntza bizirik mantentzen duen Baztan.

Horregatik behin eta berriz aldarrikatzen dugu UGPS/PSIS hau gelditzea eta Baztan mailako herri galdeketa egitea. HERRITARRENA DA HITZA, HERRITARRENA ERABAKIA!